



Arartekoaren ebazpena, 2012ko apirilaren 4koa. Horren bidez Gurutzetako Ospitaleko larrialdi zerbitzuko osasun arreta dela-eta irekitako espedientea amaitzen da.

Aurrekariak

1. Hainbat bideetatik Gurutzetako Ospitaleko larrialdi zerbitzuan hainbat pertsonen arretan izandako arazoak helarazi zizkiguten. Batez ere korridoreetan artatu behar izan zituzteneko egoera azaltzen zuten.

Kontuan hartuta gaixotasun agerraldietako hainbat egoeratan baldintza bereziak gerta daitezkeela, Osakidetzari informazioa eskatu genion zerbitzuaren metaketa horregatik bakarrik gertatu ote zen jakiteko edo aurreikusi -eta ondorioz, leundu- izan zitekeen beste egoeraren bat gertatu ote zen.

2. Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiak gure eskaerari emandako erantzunak Gurutzetako Ospitaleko instalazioei buruzko datuak biltzen ditu, baita larrialdi zerbitzuan artatu ondoren ingresatu behar diren gaixoen arreta jarraitua bermatzeko ospitale horrek izaten ohi dituen beste zentroetako baliabideak ere.

Larrialdi zerbitzua handitzeko eta berritzeko egin diren jarduerak deskribatzen dira, eta aipatzen denez, anbulantzien eremuak, bere hobekuntzekin, ez du arazorik gaixoak artatzeko, gehienetan arinak baitira.

Larrialdi orokorren azterketa eremuan egokitzapenak egin dira 42 box arrunt eta isolamenduzko 3 jarriz (lehen 27 arrunt zeuden, egoera okerragoetan bitan bana zitezkeenak).

Azterketa eremu hori, orokorrean, hainbat orduko behaketa eta dagokien tratamendua jaso ondoren alta jasotzen duten gaixoek hartzen dute.

Normalean edukiera nahikoa izaten da baina, azaltzen duenez, noizean behin, aurrerago azaltzen dituen arrazoiak direla eta, ez da hala izan negu honetan.





Bilakaera eremu gisa ezagutzen dena ez da aldatu eta banakako 15 box eta 2 box bikoitzekin jarraitzen du.

Bilakaera eremu horretako gaixoen normalean ospitaleratzen dira, bai ospitaleko zerbitzu baterako, bai azpiakutuen ospitale baterako (orokorrean Santa Marina eta Gorniz), bai akutuen beste ospitale baterako kasu gutxi batzuetan.

Txostenak azaltzen duenez, eremu horretan egon dira arazoak negu honetan, esparruan edukierak onartzen zuena baino gaixo gehiago egon direlako.

3. Arazoa ez da gripe episodio ezohikoen ondorio izan, baizik eta beste zentro edo unitateetan oherik ez egotearen ondorio, ohiko egoeratan gaixok bertara bideratuko baitziren. Zehazki, Santa Marina Ospitalean izandako lanek ohiko 50 oheko baliabidea oztopatu dute, Gornizko Ospitaletik konpentsatu ezin izan dena. Gainera, Gurutzetako Ospitalean (Gurutzetako 4. solairua) egindako berrikuntza lanaren ondorioz, ospitaleratze unitate hori batez beste iaz baino 12 ohe gutxiagorekin egon da.

Egoera horien ondorioz, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleak eskaera goraguneetan ezin izan ditu behar bezain beste gaixo bideratu Santa Marinara, eta horrek bilakaera eremuan eta, neurri txikiagoan, larrialdi zerbitzuko azterketa eremuan, arreta tratatzeak sortu ditu.

Bideratze murriztu hori Gornizko Ospitalera egindako lekualdaketen igoerarekin konpentsatu da, baina ez da nahikoa izan eskaeraren une gorenetan.

4. Larrialdi zerbitzuan eragina duten neurriei dagokienez, txostenak bi baliabide aipatzen ditu amaieran; lehena jada abian jarri zen burutu zen unean eta, bestea, 2012an abian jarriko dena.

Aurtengo otsailean eguneko ospitale bat abian jarri da (20 besaulki eta 12 ohe) Galdakaoko Ospitalean, erreferentziako eskualdeko (barneko eskualdea) onkologia mediku gutzia gutxika bere gain hartzeko. Neurri horren ondorioz, pertsona horien larrialdi guztiak ospitale horretara bideratuko dira Gurutzetako Ospitalera bideratu beharrean.





Urdulizko Ospitalea, ustez 2014ean abian jarriko dena.

Osakidetzaren ustez, baliabide horiekin Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko larrialdi zerbitzuak edukiera egokia izango du, noizean behin zailtasunen bat gerta daitekeen arren.

5. Hasieran azaldu dugun moduan, espediente honen bidez jakin nahi izan dugu zerbitzuaren metaketa agerraldi epidemikoekin loturiko ezohiko egoeren ondorio izan den edo aurreikusi eta, ondorioz, arindu ahal izan zitezkeen beste arrazoirik egon ote den.

Erantzuna ikuspuntu horretatik aztertu ondoren, honako balorazioa helarazten dizut.

Gogoetak

1. Ararteko erakundearen arduratu behar gara osasun arloko zerbitzuak kalitate estandarra bete dezaten eta estandar horiek gure inguruan daudenak baino baxuagoak izan ez dadila. Aldi berean, beharrei modu egokian erantzun diezaieten bermatu behar du.

Arretarako esleitutako bitartekoak eztabaidagai dituzten egoerak ikertzean, kasu honetan larrialdiak, zaila da bitartekoak nahikoak diren zehaztea, izan ere arreta unibertsaleko sistema bati buruzko azterketa baten aurrean gaude, aurrekontu mugatu baten mende dagoena. Arreta horiek egon arren, kekek kontuan hartu behar dira ebaluazio baten ondorioetarako, baldin eta eskura dauden baliabideak nahikoak izan ez zirela pentsatzeko datuak aurkitzen badira.

2. Osakidetzak gure informazio-eskaerari emandako erantzunak Gurutzetako Ospitaleko instalazioei buruzko datuak biltzen ditu, baita larrialdi zerbitzuan artatu ondoren ingresatu behar diren gaixoen arreta jarraitua bermatzeko ospitale horrek izaten ohi dituen beste zentroetako baliabideak ere.

Erantzun horretan azaldutakoa kontuan hartuta, arazoa ez da gripearen ezohiko episodioen ondorio izan, baizik eta beste zentroetan (Santa Marina



Ospitalea) edo ospitaleratze unitateetan (Gurutzetako 4. solairua) oherik ez egotearen ondorio, egoera ohikoetan bertara bideratuko bailirateke gaixoak.

Dirudenez horiek izan dira arrazoi nagusiak ohiko egoeratan bilakaera eremuan aztertuak izan ondoren beste zentro edo unitateetako ohe eta baliabideetan artatu izango ziren gaixoak larrialdi zerbitzuko instalazioetan artatzeko. Bideratu ezin zirenez, larrialdi zerbitzuan jarraitu zuten horretarako aurreikusita ez zeuden eremu eta egoeratan. Horixe litzateke komunikabideek jasotako egoera.

Ondorioz, esan dezakegu funtzionamendu arruntarekin, hau da, lanak zirela-eta erabili ezin izan diren baliabideen erabilgarritasun osoarekin, egoera horietan baldintza desegokietan artatu behar izan zirenak, behar bezala artatuko liratekeela. Zentzu horretan gainera dezakegu 2012ko otsailean Galdakaoko Ospitaleko eguneko ospitalea abian jarri dela.

3. Aurrekoa adierazita, erantzunean aipagarritzat jo ditugun bi datu antzeman ditugu. Alde batetik, negu honetako arazoak ez direla gripearen agerraldi epidemikoaren birulentzia berezi baten ondorio izan eta, bestetik, beste bitartekoak (Santa Marina Ospitalea eta Gurutzetako Ospitaleko 4. solairuko ohi gutxiago lanak zirela-eta) izateko ezintasuna alde aurretik ezagutzen zen datua zela.

Gripearen eragina maila ertainekoa izan bada, pentsatu behar dugu arazoa larriagoa izango litzatekeela agerraldi birulento bat egon izan balitz. Gogoeta hori oinarritzat hartuta, ezin dugu alde batera utzi aipatutako bigarren datuari dagokionez, Gurutzetako Ospitaleak ospitaleratu behar diren pertsonak bideratzen dituen baliabideak izateko ezintasuna alde aurretik ezagutzen zela kontuan hartuta, egoera hori konpontzeko aukerak aurreikustea posible zela.

Negu honetan Gurutzetako Ospitaleko larrialdi zerbitzuan arazoak egoteak, bereziki birulentoa izan den gripeko agerraldi epidemikorik egon ez den arren, jada aipatutako arrazoiengatik itxita egon direnen ordezkio oheak izateko aukera aztertu ote zen galdetzeraz eraman digu.

Ziurrenik, gripearen agerraldia larriagoa izan balitz, Osakidetzak txostenean azalduta agertuko ez litzatekeen neurriren bat aplikatuko zukeen, eta





beharbada ez du beharrezkotzat jo neurriak aipatzea hain zuzen ere larritasun hori egon ez zelako.

Hala eta guztiz ere, arazoaren alderdi garrantzitsu bat oheak izateko zailtasuna izan dela kontuan hartuta, beste aukera bat aurreikusteko egokitasuna aztertzea beharrezkotzat jotzen dugu.

Gurutzetako Ospitaleko larrialdi zerbitzuko funtzionamenduari buruzko datuak aintzat izanik, gaixoak bideratzeko izaten ohi diren baliabideak barne, esan dezakegu arazoa ez litzatekeela bera izan, edo arinagoa izango zitekeela, aipatutako lanak zirela-eta, une honetan erabilgarri ez dauden oheentzat beste aukerak aurreikusi izan balira.

Gure ustez, Osakidetzak gure informazio-eskaerari erantzunez egindako txostenaren oinarriari buruz egin ditugun gogoeta horiek honako ondorioetan laburbildu daitezke.

Ondorioak

1. Ezin dugu esan larrialdiko arretan egondako arazoak bitartekoen egitura murriztu delako gertatu direnik, izan ere, behin-behinean erabiltezin egon diren oheen erabilgarritasun egoeran, Gurutzetako Ospitalean horretarako xedatuta ez zeuden eremuetan ospitaleratuta egon behar izan ziren pertsonak egoera egokietan egongo lirarteke, ospitaleko beste ospitaleratze zentro edo unitateetara bideratuak izatean.
2. Osakidetzako erantzunak azaltzen digun moduan, aipatzen dituen berrikuntza lanen ondorioz, Gurutzetako Ospitalera joan ziren gaixoetako batzuk ez zuten behar bezalako arreta jaso ezin izan baitziren baliabide horietara bideratu. Beraz, egokia eta posiblea izango zitekeen egoera horrentzat beste aukerak aurreikustea.
3. Egoera horiek ekiditeko, berrikuntza lanen ondorio gisa gaixoen arretara zuzendutako osasun instalazioetan aldi baterako aldaketa edo murrizketa aurreikusten denean, lan horiek eragin dezaketen disfuntzioak arindu ditzaketen neurriak hartu beharko dira.

